Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Juanito Amundarain Tolosa

Amezketa, Gipuzkoa (1937-2023)



Aurkibidea

Biografia



Amezketako Beantetxeberri baserrian jaioa. Amezketako Urkulaparte auzoan dago Juanitoren jaiotetxea, Amezketako herritik aparte samar, eta Uharteko herrigunetik hurbil. Hala ere, ingurukoek "erbestekoak" deitzen bazieten ere urkulapartearrei, bera beti amezketar sentitu da. Lanbide bat baino gehiago izan baditu ere (Agurainen morroi, igeltsero Donostian...) inoiz ez da baserriko lanetatik aparte ibili. Joxepa Tolosarekin ezkondu eta bere jaiotetxean egin zuen bizimodua.

Zintak

AME-003

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2009-12-10
- **Iraupena**: 75 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Urkulaparte auzoa, Amezketetatik urrun

- **Erref**: AME-003/002
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:02:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Amezketako Urkulaparte auzokoak dira biak. Herritik nahiko urruti dago eta bideak txarrak izaten ziren.

2. Eskolara Uhartera eta dotrinara Amezketara

- **Erref**: AME-003/003
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:02:48. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Amezketako Uharte auzora joaten ziren elizara eta eskolara. Dotrinara Amezketara joan behar izaten zuten.

3. Maistra erdaldunak euskaraz ikasi zuen

- **Erref**: AME-003/004
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolara Uhartera joaten ziren, neskak eta mutilak elkarrekin. Berrogei bat haur ziren eskolan eta maistra bakarra. Neskei josten erakusten zieten. Eskolan ikasi beharrekoak ez ziren ikasten. Maistra erdalduna zen baina euskaraz hitz egiteko debekurik ez zeukaten. Maistrak euskara ulertzen bukatu zuen. Eskolan, irakurtzen, idazten eta matematikak ikasi zituzten.

4. Ikasle finenak maistratik gertu

- **Erref**: AME-003/005
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:09:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan binaka jartzen zituzten eta ikasleen jakintza-mailaren arabera maistratik gertuago edo urrutiago jartzen zituzten. Joxepa arratsaldetan bakarrik joaten zen eskolara, baina Juanito egun osoz. Amak seme-alabak eskolara joatea nahi zuen.

5. Amak seme-alabak eskolara bidaltzen zituen

- **Erref**: AME-003/006
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:09:24. **Bukatu**: 00:11:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Juanitoren amak, seme-alabak eskolara joatea nahi zuen baina normalean umeak ez ziren beti joaten eskolara, baserrian lagundu behar izaten zutelako. Orokorrean, mutilei ikasketa gehiago ematen zitzaien.

6. Amezketako auzoen artean pikeak

- **Erref**: AME-003/008
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:11:52. **Bukatu**: 00:13:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Ugarten ikasten zuten eta Amezketako haurren artean pikea zegoen. Ugartekoei "amoarrainak" deitzen zieten eta Amezketakoei "zapoak".

7. Denak baserritarrak ziren

- **Erref**: AME-003/009
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:13:08. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Eskolan denak ziren baserritarrak. Ugarten bertan bizi zirenek gaztelania piska bat hobeto egiten zuten, gehiago entzuten zutelako.

8. Ikasle bakoitzak arbelatxo bat zuen

- **Erref**: AME-003/010
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:16:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ikasle bakoitzak arbelatxo moduko bat izaten zuen, bide bazterrean lortutako harriarekin egina. Kalitate onekoak izaten ziren. Arbelak nola egiten zituzten kontatzen dute.

9. Eskolako materialak: luma, lapitza, zorrozgailua, arbela...

- **Erref**: AME-003/011
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:16:55. **Bukatu**: 00:19:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan luma ere erabiltzen zuten eta punta aldatu behar izaten zitzaion. Tinta eskolan egoten zen. Arkatza ere erabiltzen zuten. Zorrotzgailuari "zapoa" esaten zioten, forma hori zuelako. Bakoitzak arbelatxo bat zuen, "pizilloa" ("pizarrilloa) deitzen ziotena.

10. Eskolako "kartila" eta katona

- **Erref**: AME-003/012
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:19:59. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan erabiltzen zuten liburuari "kartila" deitzen zioten. Katona ere erabiltzen zuten: bertan esaldiak egoten ziren eta buruz ikasten zituzten. Juanitok etxean ikasi zuen irakurtzen, amarekin eta ahizpa nagusiarekin.

11. Dotrinaren ikasketa

- **Erref**: AME-003/013
- **Iraupena**: 0:04:34. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:26:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Dotrina etxean ikasten zuten, ez eskolan. Ikasitako guztiak banan-banan aipatzen ditu Juanitok. Euskaraz ikasten bazuten ere, gaztelaniatik itzulitakoak ziren. Oraindik ere buruz dakizki dotrinan ikasten zituzten galderetako asko. Jaunartzea egin aurretik, igandero Amezketara joaten ziren dotrinara.

12. Amezketan Ugartekoak ziren; Ugarten berriz, erbestekoak

- **Erref**: AME-003/014
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:26:09. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Jaunartze txikia zazpi urterekin egin zuten eta handia hamaikarekin. Dotrina ikasten zuten Amezketako haurrekin, baina bertan ez zuten lagunik. Amezketan "Ugartekoak" deitzen zieten eta Ugarten "erbestekoak".

13. Dotrina ez jakiteagatik zigortuak

- **Erref**: AME-003/015

- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:30:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Apaizak batzuetan haurrak jotzen zituen gerrikoarekin dotrina ez jakitearren. Joxepa eta Juanito ez zituzten inoiz zigortu baina beldurrez egoten ziren.

14. Dotrina bazekitela egiaztatzen zuen txartela

- **Erref**: AME-003/016
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:30:23. **Bukatu**: 00:33:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Dotrina bazekitela egiaztatu behar zuten. Horretarako txartel bat zuten eta "pazkozko" deitzen zioten. Batzuek txartela lortzeko janaria eramaten zieten abadeei: gereziak, bildotsa...

15. Etxean ez zen gerrari buruz hitz egiten

- **Erref**: AME-003/017
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:33:24. **Bukatu**: 00:35:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Gurasoek ez zuten gerrari buruz asko hitz egiten, baina jendearen artean liskarrak eta pikeak zeudela jakina da.

16. Agurainera gaztelaniaz ikastera

- **Erref**: AME-003/019
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:36:42. **Bukatu**: 00:38:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan "Viva España" abesten zuten arratsaldetan. Goizetan errezatu egiten zuten. Juanitok Agurainen ikasi zuen gaztelaniaz.

17. Errazionamendua

- **Erref**: AME-003/021
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:38:26. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ondorengo errazionamendua. Okindegian ogi piska bat gehiago ematen zieten. Gero, noizean behin beste produktu batzuk banatzen ziren errazionamenduan: azukrea, arroza, kafea... Lentejen artean harriak egoten ziren eta kontuz ibili behar izaten zuten. Ugarteko plazako dendan jasotzen zituzten errazionamenduko elikagaiak.

18. Gerra ondoren gosea ez baina eskasia bai

- **Erref**: AME-003/022
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:43:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Joxepak ez du gogoratzen gosea pasa izana, baina bere anai nagusiek bai. Ez dute goserik pasa, baina eskasia bai. Taloa eguneroko jana zen, gosaltzeko eta afaltzeko. Talo gabe ez zekien jaten Juanitok. Gaur egun ere jaten du.

19. Babarruna, oinarrizko elikagaia

- **Erref**: AME-003/023
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:43:54. **Bukatu**: 00:44:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Babarruna oso garrantzitsua zen. Eguneroko janaria zen eta batzuk saldu ere egiten zuten.

20. Garia, artoa eta babarruna ereitea

- **Erref**: AME-003/024
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:44:48. **Bukatu**: 00:47:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garai batean, baratzako produktuak ziren garrantzitsuak: garia, artoa eta babarruna. Bakoitza ereiteko momentua. Lur ona behar dute, lokatzik gabekoa.

21. Baratzea eta ilargiaren faseak

- **Erref**: AME-003/026
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:48:03. **Bukatu**: 00:50:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Gurasoek, ilargiaren faseak begiratzen zituzten baratzean lan egiteko. Beraiek, geroago ikasi dute hori.Gariarentzat, ez zioten ilargiari begiratzen, eguraldiari baizik.

22. Basoa eta ilargiaren faseak; hostoen forma

- **Erref**: AME-003/027
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:50:30. **Bukatu**: 00:53:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Zuhaitzak botatzeko ilargiari begiratu izan diote. Amezketaren toponimia, "ametza" zuhaitzetik omen dator. Inguruan zeuden zuhaitzak: urritza, haritza, gaztainak, ametzak, altza, pagoa... Zuhaitza ilargiaren fase konkretu batean botatzen denean, pipia sartzeko arrisku gutxiago dago. Hosto zorrotzak dituzten zuhaitzak normalean ilbeheran bota beharrekoak izaten dira, eta hosto borobilak dituztenak ilberrian.

23. Egurra erramintak egiteko

- **Erref**: AME-003/029
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:53:53. **Bukatu**: 00:55:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Sutara botatzeko, eraikuntzarako eta erraminten kirtenak egiteko erabiltzen zen egurra jasotzeko orduan, ilargiari begiratu izan zaio.

24. Agurainen morroi, gaztelania ikasteko

- **Erref**: AME-003/033

- **Iraupena**: 0:04:09. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 01:02:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Agurainen ibili zen Juanito beste bi anairekin gaztelania ikasten. "Los vascos" deitzen zieten. Morroi bezala ibili ziren hango baserri batean. Urtebete egin behar zuen bertan, baina etxera bueltatu behar izan zuen.

25. Garai batean Agurainen euskararik ez

- **Erref**: AME-003/034
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 01:02:19. **Bukatu**: 01:05:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Garai batean Agurainen inork ez zuen euskararik egiten, Gipuzkoatik joandakoa ez bazen. Orain dela urte batzuk Agurainera joan ziren hileta batera eta harrituta gelditu zen, orain euskaraz egiten delako bertan.

26. Aguraineko baserri batean morroi

- **Erref**: AME-003/035
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 01:05:16. **Bukatu**: 01:08:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Agurainera morroi bezala joan zenean maiatza zen eta patata sartzen ari ziren. Garia, oloa, garagarra eta zekalea ereiten zen. Lanak eta tresneria. Segarekin ebakitzen zen garia. Eguneroko lanak.

27. Neskame joan zen gaztelania ikasteko

- **Erref**: AME-003/036
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:08:57. **Bukatu**: 01:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Neskame bezala atera zen etxetik, batez ere gaztelaniaz ikasteko. Jende asko joaten zen morroi edo neskame beste leku batzuetara, dirua irabazteaz gain gaztelania ikasteko.

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com